



## AURKEZPENAK ETA POSTERRAK GORDE ETA PARTEKATZEKO WEB ZERBITZUAK SERVICIOS WEB PARA ALMACENAR Y COMPARTIR PRESENTACIONES Y PÓSTERS

52

### DEFINIZIOA Zer da?

2.0 webak era askotako aurkezpenak —hala nola diapositibak, infografiak, mihise dinamikoak eta poster digitalak— gorde eta sarean partekatzea ahalbidetzen duten aplikazioak eskaintzen ditu. Gainera, zerbitzu horiek kontsulta-iturri interesgarri bihurtu dira, bertan, aurkezpen-formatua duen edozein eduki mota aurki baitaiteke.

Eskaintzen duen abantaila argia da: fitxategiak parteka ditzakegu gure posta-mezuetan astunak diren fitxategiak erantsi gabe. Horrez gain, aurkezpenak web-orri batean [[Info gehiago 42. fitxan](#)] edo blog batean [[Info gehiago 06. fitxan](#)] argitaratzeko kode bat lortzen da.

Hainbat zerbitzuek, aurkezpenak gorde eta argitaratzeaz gain, linean zuzenean sortzea ahalbidetzen du.

### DEFINICIÓN ¿Qué es?

La web 2.0 ofrece aplicaciones gratuitas donde almacenar presentaciones en forma de diapositiva, infografías, lienzo dinámico o como pósters digitales y compartirlas en la red. Estos servicios se han convertido además en una interesante fuente de consulta donde encontrar todo tipo de contenido en formato de presentación.

Su ventaja radica en la posibilidad de compartir sin la necesidad de adjuntar archivos pesados en nuestros mensajes de correo. Se obtiene, además, un código para publicar las presentaciones en una página web [[Más info en ficha 42](#)] o un blog [[Más info en ficha 6](#)].

Algunos servicios además de almacenar y publicar las presentaciones, permiten crearlas directamente en

línea.

**BALIABIDEAREN  
ERABILERA**  
**Nola erabiltzen da?**

Diapositiban egiten diren aurkezpenak Impress (Open Office) edo Powerpoint (Microsoft Office) bezalako programekin lantzen dira eta gero fitxategia dagokion web-zerbitzuaren webgunera igotzen da. Gehienez 20 Mb-ko pisua duten fitxategiak onartzen dituzte, diapositiben arteko trantsiziorik gabe. Aurkezpenetan audioa txertatzeko aukera ere badago: <http://www.youtube.com/watch?v=Qv2Gi6tQnaE>

Bai Glogsterren poster digitalak, bai Preziren mihise dinamikoak, linean egiten dira eta ostatatuta dauden tokiko web-helbidea lortzen da. Helbide hori poster eta mihise horiek webguneetan edo blogetan estekatzeko edo posta elektronikoz hedatzeko erabiltzen da.

Zerbitzu horietako gehienak erabiltzeko aurrez erregistratu egin behar izaten da, aurkezpenak artxibatu, argitaratu eta zabaltzeko kontu bat lortzeko.

**UTILIZACIÓN  
RECURSO**  
**¿Cómo se usa?**

Las presentaciones en forma de diapositiva, se elaboran con programas como Impress (Open Office) o Powerpoint (Microsoft Office) y luego se sube el fichero en el sitio del servicio web correspondiente. Admiten archivos de hasta 20 Mb de peso, sin transiciones entre diapositivas. Existe la posibilidad de incrustar audio en las presentaciones: <http://www.youtube.com/watch?v=Qv2Gi6tQnaE>

Tanto los pósters digitales de Glogster, como los lienzos dinámicos de Prezi, se realizan en línea y se obtiene una dirección web de su alojamiento que utilizamos para enlazarlos en sitios web o blogs o difundirlos por correo electrónico.

La mayoría de estos servicios requieren un registro previo para obtener una cuenta donde archivar, publicar y difundir las presentaciones.

**IKASGELARAKO  
GOMENDIOAK**

Ikasleek egiten dituzten aurkezpen guztiak argitaratzeko eta ikastetxeko webgunera [[Info gehiago 42. fitxan](#)] edo ikasgelako blogera [[Info gehiago 06. fitxan](#)] lotzeko. Hartara, ikusteko aukera ireki eta familiekin nahiz gainerako hezkuntza-komunitatearekin partekatzen dira.

Aurkezpen digitalak paperezkoei eta antzekoei nagusitu zaizkie, multimedia aukera handia ematen

baitute. Ikasleek beren aurkezpenak transmititu nahi dituzten kontzeptuak azaltzeko lagungarriak diren irudiz, soinuz eta bideoz aberats ditzakete.

Gaur egun interneten erabilgarri dauden aurkezpenen liburutegia era guztietako gaiei buruzko kontsultaturri ere bada. Beste ikasle batzuek, irakasleek edo adituek eginak izan ohi dira.

### **RECOMENDACIONES PARA EL AULA**

Para publicar todas las presentaciones que realizan los alumnos y enlazarlas al sitio web del centro [[Más info en ficha 42](#)] o blog de aula [[Más info en ficha 6](#)]. De esta forma cobran visibilidad y se comparten con las familias y demás comunidad escolar.

Las presentaciones digitales superan a sus pares en papel afiche o similar por la posibilidad multimedia que habilitan. Los alumnos pueden enriquecer sus presentaciones con imágenes, sonidos y vídeos que ayuden a explicar los conceptos que quieren transmitir.

Las bibliotecas de presentaciones disponibles hoy día en Internet son una fuente más de consulta sobre todo tipo de temáticas, pueden estar elaboradas por otros alumnos, docentes, o especialistas.

### **GOMENDATUTAKO GUNEAK Non aurki dezaket?**

#### **Slideshare (ingelesez)**

<http://www.slideshare.net/>

Diapositiba-aurkezpenak inportatzea ahalbidetzen du eta prozesatu eta Flash formatura bihurtzen ditu, linean bistaratzeko. PowerPointeko, OpenOfficeko edo edozein programatako aurkezpenekiko bateragarria da: ppt, pps, opd eta pdf. Gainera, beste dokumentu eta kalkulu-orri batzuk onartzen ditu.

#### **Slideshareri buruzko tutorialak**

##### **Nola sortu eremu bat slidesharen**

[http://alerce.pntic.mec.es/bmarco1/pagina\\_web/slideshare.htm](http://alerce.pntic.mec.es/bmarco1/pagina_web/slideshare.htm)

Benedicto Marcos Benito pedagogia-irakasleak egina. Miguel de Cervantes BHI, Madril.

##### **Nola kargatu artxiboak**

<http://www.slideshare.net/lalunaesmilugar/tutorial-de-slideshare>

Karina Crespo-k Educ.ar hezkuntza-atarirako egina.

#### **Zoho show**

<http://show.zoho.com/>

Diapositiba-aurkezpenak inportatu eta editatzea ahalbidetzen duen Zohoren web-zerbitzua. Zoho Showren gai aurrez eratuei, clipart irudiei eta formei eta arrastatu eta besteak beste kokatzeko funtzioei esker, oso erraza da tresna hau erabiltzea.

**Zoho Show-ri buruzko tutoriala**

Darwin Patricio García UISRAELeko ikertzaileak egina.

<http://www.slideshare.net/matalote77/presentaciones-en-zoho-show-presentation>

Aurkezpenak sortu eta partekatzeko web-zerbitzu bat erabiltzeko.

<http://www.youtube.com/watch?v=5x0FyCZ5VrE>

**Prezi (ingelesez)**

<http://prezi.com/>

Lineako aurkezpen dinamikoen editorea. Gardenkirik ez erabiltzea du bereizgarri. Irudiak, testuak eta bideoak itsasteko mihise birtual handi batean biltzen da dena. Guztia hutsik dagoen orri handi batean dagoenez gero, informazioa bistaratzeko ordena kontrolatzeko kamera aurkezpenean mugi dadin programatu egin beharko da. Hortaz, orriak pasatu beharrean, informazioa zoomen, biraketen eta kamera-desplazamenduen bitartez informazioa gaineratik hegan egiten duela ikusiko du erabiltzaileak. Horri esker, diapositiba-aurkezpen hutsak baino estilo dinamikoagoa izango du aurkezpenak.

**Glogster (ingelesez)**

<http://edu.glogster.com/>

Poster digitalak linean sortu eta bere URLaren bitartez partekatzeko aukera ematen digun 2.0 web aplikazio bat da. Glogsterren, irudi, testu, bideo eta audioak modu sinplean grabatzen dira, edo internetetik estekatzen dira modu arinean integratu eta multimedia produktuak eratzeko. Glogsterren hezkuntza-bertsio berriak ingurune atsegina ematen dio irakasleari eta ikasleen ekoizpenen jarraipena errazten du. Oraingoz, ingelesez baino ezin da erabili, baina oso erraz eta modu intuitiboan erabil daiteke.

Glogsterren sortutako posterrak 2.0 webaren beste hainbat aplikaziorekin lotzeko pentsatuta dago, hala nola blogekin, mikroblogekin eta sare sozialekin lotzeko.

**Glogster erabiliz egindako jardueren adibideak**

- Titanic-en historian oinarritutako jarduera "A pie de aula" blogean. Lourdes Domenech-en bloga. <http://apiedeaula.blogspot.com/2009/11/glogster-actividad.html>
- Miguel Hernandezi omenaldi bat Glogsterren Irma Del-en "Bloggeando" blogean

**SITIOS  
 RECOMENDADOS**  
**¿Dónde lo  
 encuentro?**

- <http://irmadel.wordpress.com/2009/10/29/glogster-2/>
- Educ@conTIC. Poster digitalen abantailak laburtzen dituen artikulua. Bideotutorial bat biltzen du (gaztelaniaz)  
<http://www.educacontic.es/blog/valor-educativo-de-los-posters-digitales>

**Slideshare (en inglés)**

<http://www.slideshare.net/>

Permite la importación de presentaciones de diapositivas y se encarga de procesarlas y convertirlas en formato Flash para su visualización en línea. Es compatible con presentaciones en PowerPoint, OpenOffice o cualquier programa: ppt, pps, opd y pdf, además de admitir otros documentos y hojas de cálculo.

**Tutoriales Slideshare**

**Cómo crear un espacio en slideshare**

[http://alerce.pntic.mec.es/bmarco1/pagina\\_web/slideshare.htm](http://alerce.pntic.mec.es/bmarco1/pagina_web/slideshare.htm)

Elaborado por Benedicto Marcos Benito, profesor de pedagogía. IES Miguel de Cervantes, Madrid.

**Cómo subir archivos**

<http://www.slideshare.net/lalunaesmilugar/tutorial-de-slideshare>

Elaborado por Karina Crespo para el portal educativo Educ.ar

**Zoho show**

<http://show.zoho.com/>

Servicio web de Zoho que permite importar y editar presentaciones de diapositivas. Los temas preconstruidos de Zoho Show, las imágenes de clipart y formas, unidas a funciones tales como la de arrastrar y colocar, hacen de esta herramienta una aplicación muy fácil de usar.

**Tutorial Zoo Show**

Elaborado por Darwin Patricio García, investigador de UISRAEL.

<http://www.slideshare.net/matalote77/presentaciones-en-zoho-show-presentation>

Para utilizar un servicio web para crear y compartir presentaciones.

<http://www.youtube.com/watch?v=5x0FyCZ5VrE>

**Prezi (en inglés)**

<http://prezi.com/>

Editor de presentaciones dinámicas en línea. La peculiaridad es que no utiliza transparencias, sino que

todo se integra en un gran lienzo virtual donde pegar imágenes, textos y vídeos. Al estar todo situado en una gran hoja en blanco, la forma de controlar en qué orden se visualiza la información será programando la cámara para que se mueva a lo largo de la presentación. Así que en vez de pasar páginas, el usuario irá viendo cómo sobrevuela la información a través de zooms, giros y desplazamientos de cámara, dándole así un estilo más dinámico con respecto a una presentación de diapositivas.

### **Glogster (en inglés)**

<http://edu.glogster.com/>

Es una aplicación web 2.0 que nos permite crear pósters digitales en línea y compartirlos a través de su URL. En Glogster, las imágenes, los textos, los vídeos y los audios se graban de forma sencilla o se enlazan de Internet para integrarse fluidamente y conformar productos multimedia. Glogster en su reciente versión educativa proporciona un entorno amigable para el docente que facilita el seguimiento de las producciones de los alumnos. Por ahora está disponible sólo en inglés, pero su uso es muy fácil e intuitivo.

Los pósters creados en Glogster están pensados para vincularse con otras aplicaciones de la web 2.0 como blogs, microblogs o redes sociales.

### **Ejemplos de actividades con Glogster**

- Actividad a partir de la historia del Titánic en A pie de aula. Blog de Lourdes Domenech  
<http://apiedeaula.blogspot.com/2009/11/glogster-actividad.html>
- Un homenaje a Miguel Hernández en Glogster En Bloggeando de Irma Del  
<http://irmadel.wordpress.com/2009/10/29/glogster-2/>
- Educ@conTIC. Un artículo que resume las ventajas de los posters digitales e incluye un videotutorial en castellano  
<http://www.educacontic.es/blog/valor-educativo-de-los-posters-digitales>